



**2012KO UZTAILAREN 27KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko uztailaren hogeita zazpian, eguerdiko hamabietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel eta Felix Urkola Iriarte.

Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Patxi Albisu Estensoro, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2012ko ekainaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- "6 H.J.A. -ITURGAITZAGA- URBANIZAZIOAREN OBRAK, 1. FASEA" PROIEKTUKO LANEN ESLEIPENA.-**

Kontratazio Mahaia egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

- 1.- "6 H.J.A.ko -Iturgaitzaga- Urbanizazio Obrak 1. Fasea" kontratua GORAIKI A.E.B.ri esleitzea. Kontratuaren prezioa 903.954,63 €-koa izango da (gehi BEZa), kontratua burutzeko epea 6 hilabetekoa eta berme epea 5 urtekoa, beti ere, administrazio-baldintza zehatzen orrian eta esleipendunaren proposamenean zehaztutakoen menpe.
- 2.- Esleipendunak bere proposamenean aurkeztutako aukerak, aldaketak edo hobekuntzak onartzea, obra egiterakoan udalak erabakiko duelarik hobekuntza horiek egin ala ez edo/ eta nola egin.

Hori guztia, Kontratazio Mahaia egindako proposamenarekin bat etorritz. Proposamena espedientean jasota dago.



IV.- 21.1. E.U.REN -KANPANDEGI- HIRITARTZE PROIEKTUAN BARNERATUTAKO ERRO-  
TONDAREN OBREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ONARPENA ETA LIZITAZIO DEIAL-  
DIA.-

21.H.J.A.ren -Kanpandegi- 21.1 E.U.ko hiritartze proiektuan barneratutako erroton-  
daren obren kontratazio-proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin  
lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide  
guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

- 1) Jardunbide ireki bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko adminis-  
trazio-baldintza zehatzen orria onartzea, bai eta MILIOI BAT BERREHUN ETA HIRU-  
ROGEITA BAT MILA BERREHUN ETA BOST EURO ETA HIRUROGEITA ZAZPI ZENTIMO  
(1.261.205,67 €)tako gastua ere.
- 2) Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

V.- 19.1 -LARREATEGI- UNITATEAN LURSAIL BAT BESTERENTZEKO KONTRATAZIO ESPE-  
DIENTEAREN ONARPENA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

19 H.J.A.ren -Larreategi- 19.1 E.U.an lursail bat besterentzeko kontratazio-propo-  
samena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabe-  
herak ikusita, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, hona-  
ko erabakiak hartu ditu:

- 1) Lursaila lehiaketa bidez besterentzeko espedientea eta kontratua araupetzeko admi-  
nistrazio-baldintza zehatzen orria onartzea. Lizitazio oinarria EHIN ETA HAMABI MILA  
ZORTZIEHUN ETA HOGETA HEMEZORTZI EURO ETA BOST ZENTIMO (112.838,05  
€)tako izango da.
- 2) Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

VI.- UHIN ELEKTROMAGNETIKOAK ISURTZEN DITUZTEN EUSKARRI ETA AZPIEGITUREN  
ERABILERARI BURUZ GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAN ONARTUTAKOARI ATXEKI-  
MENDUA.-

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko batzor-  
deak, 2012ko ekainaren 22ko bilkuran, 72/2012 Ebazpena, uhin elektromagnetikoak isur-  
tzen dituzten euskarrak eta azpiegituren erabilerrari buruzkoa, onartu zuen. Ebazpen hone-  
tan zera jasotzen da:

- "1.-Gipuzkoako Batzar Nagusiek adierazten dute bat egiten dutela Europako Kotseiluaren  
Parlamentu Batzarraren 1815 ebazpenarekin. Halaber, dei egiten diete Foru Aldundiari  
eta Gipuzkoako udalei ere, bat egin dezatela aipaturiko ebazpenarekin.
- 2.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari eskatzen diote eraikin publikoetan aipatu-  
riko ebazpenean jasotzen diren gomendioak bere egin ditzala, arreta-printzipioa apli-  
katuz.



- 3.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek Foru Aldundiari dei egiten diote langile eta biztanleen Osasuna bermatzeko Europako gomendioak zintzoki bete ditzala; eta uhinak neurtzeko orduan segurtasun koefiziente handiena bermatzen duen neurtzeko prozedura kontuan izan dezala."

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Europako Kontseiluaren Parlamentu Batzarraren 1815 ebazpenarekin bat egiteari buruz egindako eskakizunaren aurrean, ebazpen honekin bat egitea erabakitzen du.

#### VII.- ESTATUARI AKTAK EZ ZAIZKIOLA BIDALTZEN ETA, TARTEJARRITAKO KONTENTZIOSO-ADMINISTRATIBOA.-

Donostia-San Sebastián-eko Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko Epaitegiak idatzia bidali du Udal honetara, bertan Estatuaren Administrazio Orokorak -E.A.E.ko Gobernua- ren Ordezkaritzak- 2012ko uztailaren 11ko datan tartejarritako errekurso kontentzioso-administratiboa dela eta administrazio-espeditentea erreklamatzeko du eta interesatuak ebatzea agintzen du.

Errekurso kontentzioso-Administratibo hau 7/1985 Legearen 56.1 artikulua ezarritako betebeharra ez betetzearen aurkakoa da, hau da, udalak Estatuaren Administrazio Orokorari ez diola hartzen dituen erabaki eta akordio berri ematen.

Hau ikusita alkateak proposatzen dio Osoko Bilkurari kontentzioso hau ixte arren, hemendik aurrera akordioak eta erabakiak bidaltzen hastea.

Azaldutakoaren aurrean, Osoko Bilkurak, bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- Donostia-San Sebastián-eko Administrazioarekiko Auzien 1 zk.ko Epaitegiak egindako komunikazioaren jakitun dela adieraztea.
- 2.- Hemendik aurrera, udal honek hartzen dituen akordio eta erabakiak Estatuaren Administrazio Orokorari bidaltzea.

#### VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, eguerdiko ordu bata hamar gutxi denean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

